Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Jesus Astiazaran Bilbao

Bermeo
Bizkaia (1924)



Aurkibidea

Biografia



Agirre auzoko Errotatxu baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa da Jesus. Ama bertakoa zuen eta aita Zuluetatxu baserrian jaioa. Aitaren aldeko aitona, Alkizatik etorritakoa zen. Hermanoen ikastetxera joan zen 7 urtetatik 11 urtera arte; hala ere, eskolan hasi orduko ikasi zuen irakurtzen egunero irakurtzen baitzuen egunkaria. Gerra Zibilean, frontea hurre-hurre izan zuten eta orduan gertatutakoak ondo gogoratzen ditu: auzoan lurperatu zituzten hainbat soldadu italiar, 19 egunez etxetik kanpo egon ziren, auzoko 37 gazte boluntario joan ziren... Bere aitaginarreba Axpen (Busturia) fusilatu zituzten 5 gizonetako bat izan zen. Erlezaintza, sagardogintza, aitonagandik ikasitako erremedioak, inguruetako pizti eta animaliak... izan ditu berbagai, besteak beste. Urte askoan animali zein pertsonei txertoak jartzen ibilitakoa da, sasoi hartan praktikantea ez baitzen baserrietara joaten. Bermeoko baserritarren kooperatibako presidente eta 17 urtez Agirreko auzo-alkatea izan da.

Zintak

BRM-116

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-06-01
- **Iraupena**: 67 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

BRM-117

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Data**: 2012-06-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

BRM-118

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-06-01
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. Ur bidea eta andapara.

- **Erref**: BRM-116/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Errotan jaio arren ez zuen berau martxan ezagutu. Etxe atzetik zetorren ur bidea eta handik betetzen zen andapara. Herrira urak eroaterakoan, sikatu zen eta ur barik ezin izan zuen lanean jarraitu.

2. Bi errota Agirre auzoan

- **Erref**: BRM-116/004
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:03:36. **Bukatu**: 00:04:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Errotatxuren ondoan beste errota bat zegoen, Errotabarri; biak batera zarratu zituztela uste da.

3. Aitona giputza, Alkizakoa

- **Erref**: BRM-116/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:22. **Bukatu**: 00:06:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bere aitaren aldeko aitona Alkizatik (Gipuzkoa) etorritakoa zen; hori dela-eta, hari "aitona" deitzen zion eta bermeotarrari "aitxitxe". Lanera etorri zen bere

anaiaren batera. Almikako Zuluetatxu baserrira ezkondu ziren. Ama, ostera, Errotxatxukoa bertakoa zuen.

4. Errota bizitzeko leku hezea

- **Erref**: BRM-116/006
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:06:12. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Anaia bat umetan hil zitzaien. Errotan hezetasun asko zegoen, eta ez zen bizitzeko leku egokia; horregatik egin zuten gerora etxe berria.

5. Ama Mungiako eta Bermeoko plazara

- **Erref**: BRM-116/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:37. **Bukatu**: 00:13:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Bere ama Bermeoko plazara joaten zen terrina burua gainean eramanda. Astoz Mungiara ere joaten zen beste auzoko batzuekin batera gereziak saltzen.

6. Gerezi eta sagar motak

- **Erref**: BRM-116/010
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:13:12. **Bukatu**: 00:14:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Gerezi mota asko izaten zituzten: mando kerizak, kaballo kerizak, demiku keriza, Kintxel zuria, kintxel gorria... Sagarrak ere ugari zituzten: "gasazabala", "luposagarra" (sagardoa egiteko)... Sagardoa ere egiten zuten etxean.

7. Sagardoa egiteko prozesua

- **Erref**: BRM-116/011
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:14:25. **Bukatu**: 00:16:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Sagardoa egiten zuten etxean luposagarragaz. Prozesua azaltzen du pausuz pausu.

8. Hegazti askoren desagerpena

- **Erref**: BRM-116/012
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:16:19. **Bukatu**: 00:18:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Natura » Fauna

Laburpena:
Grabazioan bertan, etxeko etartean txori bat dago elaiaren kabian, baina ez da elaia, txori ezezagun bat da. Lehen ikus zitezkeen hainbat txori ez dira ikusten jada, asko aldatu da inguruko fauna. Miruek mesedea egiten dute, sugoia (sugea) eta kalte bakoak hartzen dituztelako. Erroiek, ostera, artoa jaten dute kalte handia sortuz.

9. Fauna asko aldatu da

- **Erref**: BRM-116/015
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:19:51. **Bukatu**: 00:20:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:
Lehen "basurde" edo "basotxarri" berba existitu ere ez zen egiten, espeziea bera ez zegoelako. Lukiak (azeriak) eta erbiak, ostera, beti egon dira. Orkatza ere espezie berritzat daukate.

10. Txoriek gariari eta artoari kalterik ez

- **Erref**: BRM-116/016
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:20:52. **Bukatu**: 00:21:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:
Lehen arto eta garitan txori asko ibiltzen zen inongo kalterik egin barik, nahi beste zuten-eta. Artatxoria, esate baterako, guztiz desagertu da zonalde honetan.

11. Klima aldaketa

- **Erref**: BRM-116/018
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Klima aldaketa dela-eta, hainbat txorik beste zonalde batzuetarako bidea hartu dute. Klima ez da lehengoa: negua negua zen, udaberria udaberri... Neguan Bermeoko kaleetan autoarentzako kateekin ibili izan da. Elurra egiterakoan, goietatik eskegitako estalaktitekin ezpatak bailiran legez jolasten ziren.

12. Errekako eta putzuetako fauna

- **Erref**: BRM-116/019
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:23:28. **Bukatu**: 00:26:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Errekakoak

Laburpena:
Etxe ondoan arrankari asko egon izan dira beti. Jatekoak diren zapoak ere ugari ziren. San Antonio zapoak belar lekuetan egoten ziren eta kodainagaz errez harrapa zitezkeen. Sapaburuak ere desagertu dira.

13. Kirikolatzak eta sugeak

- **Erref**: BRM-116/021
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:28:15. **Bukatu**: 00:29:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:
Kirikolatzak sagarrak hartu eta palatura (itxitura batera) eramaten zuren bizkarrean. Beraiek ez zituzten jaten, baina jangarriak dira. Sugoiak (sugeak) ere ugariak ziren.

14. Erreka-sugeak

- **Erref**: BRM-116/023
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:29:53. **Bukatu**: 00:31:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Errekakoak
- Natura » Fauna

Laburpena:
Erreka-sugoiak (sugeak) ikusteko aukera dago inguruetan. Arriskutsuak dira eta neguan lo egoten dira. Behin kodainagaz bost batera hil zituen, plastiko azpian zeuden bostak.

15. Arto-irina olioagaz ebakitako hezurrarentzat

- **Erref**: BRM-116/025
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:33:26. **Bukatu**: 00:34:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Arto-irina olioagaz nahastuta jarri zuen atzamarreko hezurra ebaki zuenean. Dindilizka izan zuen eta horixe jarri zion amak aska baten barruan.

16. Aitonaren erremedioak

- **Erref**: BRM-116/026
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:34:52. **Bukatu**: 00:37:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Kolpeentzat ardoa azukreagaz nahastatuta ematen zuten. Aitaren aldeko aitonak amarrak egiten zituen besikula blokeatzen zenerako. Gripea zuenean, zotza sudurretik sartzen zuen sanen bat errementatu eta odola botatzeko. Bere ama ezkontzeko zegoela, lepoan asunekin jo zuen gripea osatzeko. Auzoko bati haurdun zegoela igarri zion aitonak emakumeak berak jakin aurretik.

17. 90 graduko alkohola 20 berakatz burugaz odola garbitzeko

- **Erref**: BRM-116/030
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:46:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
90 graduko alkohola 20 berakatz burugaz izan eta handik hilabete batera-edo barautan hartuta, odola garbitzen ei da. Edozein berakatz erabiliz gero, emaitza ez da berdina. Pare bat belar ere onak dira odola garbitzeko.

18. Sendabelarren garrantzia

- **Erref**: BRM-116/032
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:46:44. **Bukatu**: 00:48:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Inguruetako belarrek garrantzia asko dute sendabelar bezala. Bere aita horrela osatu zen gaixoaldi batetik. Jesusek fede asko du eta asko estimatzen ditu belarrok. Kipula ere ona da.

19. Txerto-jartzailea

- **Erref**: BRM-116/033
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:48:37. **Bukatu**: 00:49:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Inguruko auzo askotan, animalia zein pertsonei txertoak ematen aritutakoa da, baina inoiz ez sanetan. Bermeon ez zen praktikanterik egoten sasoi hartan, eta medikuek bazekiten horretan aritzen zela eta beraiek agindutakoa ematen zuen.

20. Gari-lanak auzolanean; gari-joten andrerik ez

- **Erref**: BRM-116/034
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:52:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Auzolana nagusi zen baserritarren artean. Gari-lanen sasoian, jai handia antolatzen zuten. Oso gogorra zen. Andreak ez ziren gari-jotean aritzen, baina bai laietan.

21. Gari-lanak

- **Erref**: BRM-116/035
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:52:06. **Bukatu**: 00:53:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
Gari-lanak pausuz pausu azaltzen ditu.

22. Gari-joteko makina

- **Erref**: BRM-116/037
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:54:17. **Bukatu**: 00:55:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gari-lanetarako makinak eta motorrak ez ziren beraienak, kintaleko (50 kilo) kobratzen zien. Francoren denboretan, garia entregatu behar izaten zuten herrira.

23. Arto eta indaba beharrak

- **Erref**: BRM-116/039
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:56:33. **Bukatu**: 00:59:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoa behi parearen laguntzarekin ereiten zuten. Prozesua azaltzen du. Artoagaz batera ereindako indaba askoz hobea da, indabaren gerizpea dauka-eta. Gerraostean, indabak prezio ona zuen kanpoan ez zelako ekoizten.

24. Bertoko eta Argentinako artoa

- **Erref**: BRM-116/040
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:59:08. **Bukatu**: 01:00:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Bertoko arto autoktonoa galdu egin dela dio Jesusek. Bertoko artoak mami asko du. Bera baserritarren kooperatibako presidente izan zenean, Argentinatik ekartzen zuten artoa.

25. Baserritarren kooperatiba

- **Erref**: BRM-116/042
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 01:02:52. **Bukatu**: 01:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Bermeoko plazan denetarik saltzen zuten eta bezero asko zituzten. Baserritarren kooperatibako presidentea izan zen urte askoan Jesus. Kooperatibaz gain sindikatua ere egon zen. Bizkaiko kooperatiba garrantzitsuena izan zen, 300 baserritarretatik gora batzen baitziren bertan.

26. Ermandadea

- **Erref**: BRM-117/001
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Ermandadeak ganaduaren aseguru bezala balio zuen. Kasu batzuetan etxearen asegurua ere bazen. Zerbait pasatuz gero, eskotean ordaintzen zuten ermandadeko kideek bestearen kaltea.

27. Artoaren atal denak aprobetxagarriak

- **Erref**: BRM-117/002
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:01:19. **Bukatu**: 00:02:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoaren atal guztiak aprobetxatzen dira: lastana, garafa, lastoa, burutsa...

28. Koltxoiak, edredoiak... etxean egindakoak

- **Erref**: BRM-117/004
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoaren lastoa edo iraren orria erretzeko erabiltzen zuten gazteek. Garafarekin (arto-azala) koltxoiak egiten ziren eta oilo-lumekin edredoiak.

29. "Ai ene, oi ene, hagiñeko miñe medikuñe"

- **Erref**: BRM-117/006
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:03:44. **Bukatu**: 00:04:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
"Ai ene, oi ene, hagiñeko miñe medikuñe" abesten zioten haginetako minari. Minentzako enplastuak-edo jartzen zituzten. Hagina jausterakoan, teilatu gainera botatzen zuten berria ateratzeko.

30. Fruta-arbolekin ilargiari kasu

- **Erref**: BRM-117/010
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:08:25. **Bukatu**: 00:11:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Bere aitona lorazain bezala lanean aritutako zen Bermeoko hainbat etxetan. Ilargiari kasu asko egiten zion arbolekin lanean aritzerakoan, urhiletan egin behar baita. Eztitzak egiten zituen, nahi duzun fruta txertatzeko. Ortuko lanetarako jada ez zaio kasurik egiten, gaur egun ez dagoelako arorik, udaberri ez da udaberria...

31. Gazun-askak eta arkak

- **Erref**: BRM-117/012
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:11:59. **Bukatu**: 00:13:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Umetako bizimodua zoriontsua zen. Baserrian ez zuten goserik, beti zuten zer jan-eta. Txerria gazun-askan gordetzen zen, gatzaren askan. Artoa, garia eta irina arkatan gordetzen zuten.

32. Irinaren kolorean igartzen da zein arto den

- **Erref**: BRM-117/013
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:13:33. **Bukatu**: 00:14:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere, errotako irina jaten zuen Jesusek. Gernikan "arto-hezie" saltzen ei dute, labean sartu gabekoa eta ez da hain ona.

33. Bakioko errotetara ezkutuan

- **Erref**: BRM-117/015

- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:14:28. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Gerraostean, ez zuten uzten ehotzen, errotak prezintatu zituzten-eta. Bakioko Urgitxi eta Ureta errotetara joaten ziren gauez. Bidea ez jakin arren, astoak bazekien eta ez zegoen galbiderik.

34. Eskolara orduko "Noticiero bilbaíno" irakurtzen

- **Erref**: BRM-117/016
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:17:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Eskolara joan orduko, egunero irakurtzen zuen egunkaria; hori dela-eta, irakurtzen jakin zuen. Garabillatarrenei esnea eramaten zien amak eta haien bitartez harpidetu ziren "Noticiero bilbaíno"ra.

35. Hermanoen ikastetxean zorrotzak ziren

- **Erref**: BRM-117/017
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:17:26. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Anaia menesianoen ikastetxera joan zen. Asko gustatzen zitzaion eskola. Hermano Bitor gogoratzen du behin Seber Ormazarekin izan duen tirabira bat tarteko. Dena zen erdaraz. Gurasoei eskerrak mantendu da euskara.

36. Larrinagako presoen abestia

- **Erref**: BRM-117/019
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:21:16. **Bukatu**: 00:22:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Larrinagako presoek sortutako abesti bat abesten du gaztelaniaz. Esangura askoko abestia

37. Larrinagako kartzelako abestia

- **Erref**: BRM-117/021
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:22:57. **Bukatu**: 00:23:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Eusko gudariak abestiaren doinu berarekin Larrinagako kartzelako presoek egindako abestia abesten du. Gaztelaniaz da abestia, sasoi hartan ezin baitzen euskaraz abestu.

38. Aitaginarreba fusilatu eta amaginarreba preso auzoak salatuta

- **Erref**: BRM-117/024
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:25:29. **Bukatu**: 00:29:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Bere aitaginarreba Axpen (Busturia) fusilatu zituzten bost gizonetako bat izan zen. Etxera joan zitzaizkien bila Bermeoko batzokian agertzeko esanez; handik, Larrinagako kartzelara eraman zuten eta gehiago ez zuten bere berririk izan. Ostean, harean emaztea, Jesusen amaginarreba, preso hartu zuten Bilboko Orue txaletean. Hiru hilabeteren osten, handik irteteko abokatu baten laguntzaz diru asko ordaindu behar izan zuten. Auzoko bat izan zen salatu zituena.

39. Fusilatu aurreko agur eskutitza

- **Erref**: BRM-117/026
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:31:07. **Bukatu**: 00:33:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aitaginarreba fusilatu eta amaginarreba preso hartu ostean, hiru etxebizitzako baserria erre zieten. Auzoko batzuei eskerrak egin zuten aurrera. Bere aitaginarrebak emazteari agur esateko gutuna idatzi zion eta horixe erakusten eta irakurtzen du Jesusek.

40. Sollubeko bataila etxean bertan

- **Erref**: BRM-117/029
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:34:10. **Bukatu**: 00:35:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Sollubeko bataila etxe ondoan izan zuten. Etxean bertan, soloan, soldadu italiar askoren gorpuak dituzte lurperatuta.

41. 17 baserri eta 37 gudari

- **Erref**: BRM-117/030
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:35:55. **Bukatu**: 00:36:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Etxeko soloetan soldadu italiarren hezurrak daude. Auzoan 17 baserri zeuden eta 37 gazte boluntario egon ziren gerran. Auzoan gutxi gelditu ziren eta beraiek egin behar izan zuten lan. Hildakoak lurperatutako lekuan artoa sendo ateratzen da.

42. Burezurrekin futbolean

- **Erref**: BRM-117/031
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:36:52. **Bukatu**: 00:38:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Auzoan esku-bonbak, gorpuzkiak... aurkitzea normala zen. Burezurrekin aritzen ziren futbolean olgetan.

43. Bi fronteren erdian etxea utzi behar

- **Erref**: BRM-117/033
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:38:16. **Bukatu**: 00:40:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Bi fronteren erdian egon ziren Sollubeko bataila ezagunean. Gizon batek etxea utzi behar zutela esan zien. Ganadua hartu eta burdian joan ziren Meñakara. Meñakabarrenan 19 egun egin zituzten. Beraien aurrean hil zen bertako 16 urteko mutikoa bala galdu batek jota.

44. Komentuko moja guztiak bortxatu

- **Erref**: BRM-117/034

- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:40:13. **Bukatu**: 00:42:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra Zibilean, 19 egunez etxetik kanpo egon ziren. Mairu asko egon ziren inguruetan. Meñakabarrenako komentuan egon ziren moja guztiak bortxatu zituzten mairuek, gainerakoak ere dardakadan zeuden.

45. Etxea bueltatuta dena hutsik

- **Erref**: BRM-117/035
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:42:17. **Bukatu**: 00:44:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerra Zibilean, 19 egunez etxetik kanpo egon ziren. Beraien etxeko kamaran, beraiek jakin barik Bermeoko Garabillatarrek ekarritako baliozko gauzak zeuden. Dena hustu zieten, lau hormak baino ez zituzten topatu; gaixorik zegoen txerria salbatu zen. Beraiek eramandako ganadu guztiarekin bueltatu ziren.

46. Falangistak txapel gorri eta banderekin

- **Erref**: BRM-117/043
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:51:58. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Fusilatu zuten bere aitaginarreba errepublikazalea zen. Bermeon falangistak egon izan dira. Franco Bermeora etorri zenean, horiek harrera beroa egin zioten txapel gorri eta bandera artean. Horietako asko gero abertzaleen artean ibiltzen ziren.

47. 17 urtez auzo-alkate eta anaia zinegotzi

- **Erref**: BRM-117/044
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:52:45. **Bukatu**: 00:55:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:
17 urtez Agirreko auzo-alkatea izan zen. Irudi hutsa zela dio, ez besterik. Bederatzi auzo-alkate daude Bermeon. Auzo-alkatearen betebeharra zein den

azaltzen du. Bermeoko Udala beti egon da itsasora begira, zerbitzuei dagokienean. Bere anaia zinegotzi izan zenean auzoetan lan handia egin zuen.

48. Errepublikan hezkuntzan aldaketak

- **Erref**: BRM-117/045
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:55:49. **Bukatu**: 00:56:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika sasoian, fraideen ikastetxean maisuen kapak kendu eta gurutzeak kendu zituzten.

49. Errepublikako langileen abestia

- **Erref**: BRM-117/047
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:57:54. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika sasoian, Solluberako bidean hainbat behargin aritu zen beharrean. Haiek abesten zuten abestia kantatzen du Jesusek pasarte honetan.

50. "Guardia de Asalto" Bilbotik Bermeora

- **Erref**: BRM-118/002
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:00:34. **Bukatu**: 00:01:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Gerra aurretik, Errepublika sasoian, Bilbotik edo, etortzen ziren"Guardia de Asalto"koak manifestazioak eta, egoten zirenean.

51. Pezeta eta Euskadiko dirua

- **Erref**: BRM-118/003
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:01:09. **Bukatu**: 00:01:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika sasoian pezeta egon zen indarrean, baina gero, Euskadiko dirua; baina gero ez zuen balio handirik izan.

52. Akuiluetako "gana" debekatu

- **Erref**: BRM-118/006
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:03:28. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Primo de Riverak akuilu-eztena edo akuilu-gaina debekatu zuen.

53. Nazionalistak eta errepublikanoak liskarretan

- **Erref**: BRM-118/007
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:05:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Errepublikanoen eta nazionalisten arteko borrokak egoten ziren hauteskundeetan. Karlistak ere bazeuden, bere aitxitxe, besteak beste.

54. Karlista izan zen aitxitxe

- **Erref**: BRM-118/008
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:06:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Karlista izan zen aitxitxe, eta berak ez zuen ulertzen jarrera hori. Frontea Enkanterrian egon zenean, aitxitxek soldaduen arropa zikina etxean garbitu eta oinez eramaten zien hara.

55. Botoaren diruarekin behia

- **Erref**: BRM-118/009
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:06:09. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Ordaindu egiten zuten botoa karlistek, 10 ogerleko eta. Diru horrekin erositako behiak zeuden baserrietan.

56. Forua baserrietan eta hirietan

- **Erref**: BRM-118/010
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:08:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Foruak ezberdin arautzen ditu hiriak edo baserriak; herentzietan ikusten da hori.

57. Radio Pirenaica entzuteko poza

- **Erref**: BRM-118/013
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:09:48. **Bukatu**: 00:11:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Telefunken markako irratia izan zuten etxean. Han Radio Pirenaica entzuten zuten. Hura entzutea poza izaten zen, debekatutakoa entzuten baitzuten.

58. Basarriren entzulea

- **Erref**: BRM-118/014
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:11:18. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Basarri entzuten zuren; "Nire bordatxotik" saioa. Donostiako probak zirela eta, gutuna idatzi zion, probetako Bermeoko irabazleari buruz ez zuelako ezer esaten.

59. Irratiz anaiaren itsasontziaren berri

- **Erref**: BRM-118/015
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:14:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Nabigatzen zebilen anaia gaztearen berri jakiteko, irratiko "Pleamar" saioaren arduradunari idazten zion, anaiaren itsasontzia non zebilen esan zezatela eskatuz.

60. Burua zaindu beharra

- **Erref**: BRM-118/016
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:14:03. **Bukatu**: 00:15:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Aldizkari batean irakurtzen ditu memoriari buruzko artikuluak. Autoa non utzi duen gogoratzeko bere metodoa aurkitu du.

61. Gida-baimena erraz

- **Erref**: BRM-118/017
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:15:38. **Bukatu**: 00:16:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:
Erraz atera zuen gida-baimena.

62. Bermeoko umea Gipuzkoako Goierrira

- **Erref**: BRM-118/018
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:16:11. **Bukatu**: 00:17:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Aitonak, Alkizakoa, Bermeon bizi zela, semea bidali zuen izebengana Gipuzkoara denboraldi baterako. Negarrez joan zen, baina gero itzuli nahi ez.

63. Itxia, Alkizako euskara

- **Erref**: BRM-118/019
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:18:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Itxia da Alkizako euskara, batez ere euren artean ari direnean. Bermeon, hasieran, ez zen erraza izan elkar ulertzea. Bilobek zerbait ikasi zuten aitona eta aitarengandik. Errazagoa da Donostiako hiriburukoekin euskaraz aritzea.

64. Senidean Villabonan

- **Erref**: BRM-118/020
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:18:21. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Villabonan dituzte senideak: Astiazaran anaiak, trikitilariak.

65. Lehen jairik ez Agirre auzoan.

- **Erref**: BRM-118/021
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Agirre auzoan ez zen jairik egoten. San Martin omen zegoen eta Arrietakoek lapurtu omen zuten. Orain Arrietan ospatzen da.

66. Inguruko auzoetara jaietan

- **Erref**: BRM-118/023
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:20:03. **Bukatu**: 00:20:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Inguruko auzoetara joaten ziren jaietara: San Migelera, Karmenera eta Almikara. Dantzan egiten zuten jaietan.

67. Dantzan eta kantuan grabaturik

- **Erref**: BRM-118/025
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:22:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Antzinako erara jantzi eta Urdaibaiko dantzak grabatu zituzten anaiak eta biek. Bertsoak ere bai.

68. Etxeko guztiek zekiten dantzan

- **Erref**: BRM-118/026
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:22:38. **Bukatu**: 00:22:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Umetan ikasi zuen dantzan, etxean bertan; gurasoek eta familiako guztiek zekiten jota dantzan.

69. Abarketa berriak dantzarako

- **Erref**: BRM-118/027
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:22:59. **Bukatu**: 00:23:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Abarketa zaharrak soinean eta berriak lepoan zituztela joaten ziren oinez San Juanera. Berriak janzten zituzten dantzarako.

70. Txakur handia dantzan aritzeko

- **Erref**: BRM-118/028
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:24:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Txakur handia ordaindu behar izaten zuen gizonekoak dantzan aritzeko. Ez zegoen tokian ere bilatzen zuten horretarako dirua.

71. Txinparta nobiotan hasteko

- **Erref**: BRM-118/029
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:24:03. **Bukatu**: 00:25:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Lupetegi baserrikoa zen aitaginarreba, baina Aspera ezkonduta. Hamasei urterekin ezagutu zuen emaztea Almikan eta orduko txinpartarekin jarraitu zuten nobiotan zortzi urtean.

72. Nora ezkondu?

- **Erref**: BRM-118/030
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:25:23. **Bukatu**: 00:26:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Ezkontzeko gogoa izan arren, kontua zen nora ezkondu . Aitak etxera bertara ezkontzeko baimena eman zuenean ezkondu ziren.

73. Ezkondu eta Bilboko jaietara

- **Erref**: BRM-118/031
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:26:49. **Bukatu**: 00:28:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Hiru bikote taxi batean joan ziren Aspeko elizara, eta han ezkondu ziren. Aurreko tabernan zerbait jan eta Bilboko jaietara joan ziren. Hiru egunen ostean itzuli ziren etxera.

74. 500 pezetakoa etxera

- **Erref**: BRM-118/032
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:28:32. **Bukatu**: 00:29:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Emaztearen familia diruak egindakoa zenez, 500 pezetakoa eraman zuen hark eztei-bidaiara; baina ez zuten gastatu. Gainera, Bermeoko jaietarako ere gorde beharra zegoen.

75. Ezkontza gauean lehenengo sexu-harremana

- **Erref**: BRM-118/033
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:29:16. **Bukatu**: 00:29:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Ezkondu aurretik ez zen sexu-harremanik izaten.

76. Birjinari errezatzen ezkontza-gauean

- **Erref**: BRM-118/034
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Ipuina kontatzen du: ezkonberriak Eivissara joan ziren, eta andreak birjina zela aitortu zionean senarrari, hari otoitzean belauniko eman zuen gaua gizonak.

77. Elizaren indarra

- **Erref**: BRM-118/035
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:32:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Elizak indar handia izan zuen, eta errespetua barik beldurra zieten apaizei. Gerran fusilatutako aitaginarrebaren aldeko mezarik ez zen eman Franco hil arte. Eta orduan ere poliziaz inguraturik egon zen plaza.

78. Frantziskotarrekin hobeto

- **Erref**: BRM-118/036
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:32:35. **Bukatu**: 00:33:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Santa Mariako apaizak frankistak zirenez, San Frantziskora joaten ziren. Harreman handia du Aita Adrian fraide frantziskotarrarekin.

79. Gabonetan "azoridxue"

- **Erref**: BRM-118/037
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 00:33:41. **Bukatu**: 00:34:10

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Orain "aberatsen orduan" bazkaltzen dute. Gabonetan azolioa jaten zuten: aza eta olioa.

80. Dultzez betetako gurpila Gabonetan

- **Erref**: BRM-118/039
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:35:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Gabonetan, edo oilaskoa edo oiloa, baina beti jaten zuten bisigua eta turroia. Ilusiorik handiena egiten zien dultzez betetako egurrezko gurpil batek, gero hura jostailutzat erabiltzen baitzuten.

81. Erregeak apenas ospatzen ziren

- **Erref**: BRM-118/040
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:35:25. **Bukatu**: 00:35:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Erregeetan ez zuten gauza handirik egiten; pobrezia zen nagusi garai hartan.

82. Gabonetako ogi zati bat hurrengo urterako

- **Erref**: BRM-118/041
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:35:40. **Bukatu**: 00:36:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Parranda egiten zuten Gabonetan. Jaietan, etxeko labean egiten zen ogia. Gabonetako ohitura da ogiaren hasiera hurrengo urtera arte gordetzea; horri ez zaio gardenik egiten

83. Gardena eta biaoa

- **Erref**: BRM-118/042
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:36:30. **Bukatu**: 00:37:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
"Gardena" da ogiari ateratzen zaion lizun berdea. "Bidxaue" esaten zaio siestari.

84. Portutik baserrira euskara aldatu

- **Erref**: BRM-118/043
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:37:10. **Bukatu**: 00:38:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Aldea dago Portuko eta inguruko auzoetako euskararen artean. Mañukoa, esate baterako oso euskara ezberdina da.

85. San Juanak jairik handiena

- **Erref**: BRM-118/044
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:38:18. **Bukatu**: 00:38:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
San Juanak ziren ilusio handiena egiten zuten jaiak. Oinez San Juanera goizean goiz. Orbezarretan ("Olbizarretan"), egiten zuten dantzan

86. Gaztaina harroak

- **Erref**: BRM-118/045
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:38:57. **Bukatu**: 00:40:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:
Hiru gaztaina harro ezagutu ditu. Amaren garaietan, gurdikada gaztaina eramaten zuten jateko. Gaur egun Eneperin geratzen da gaztaina harroa bat.

87. Galdu egin dira fruta-arbolak

- **Erref**: BRM-118/046
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:40:21. **Bukatu**: 00:41:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Sagarrondo lodiak egoten ziren eta sagarra ugari. Uholdeetan, ibaiak eramandako sagarrez betetzen zen Bermeoko Artza. Fruta-arbola asko egoten zen.

88. San Juanetako ohiturak

- **Erref**: BRM-118/047
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:41:10. **Bukatu**: 00:42:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:
Beti egiten zuten sua San Juan bezperan. Egunean bertan, lizarra jartzen zuten atean lore batzuekin batera. Aitaren ohitura zen San Juan goizean, biluzik, baratzeko belar txarrak kentzea.

89. Gurutzeak jartzen zituen soroetan

- **Erref**: BRM-118/048
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:42:19. **Bukatu**: 00:43:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Etxean egin ereinotzarekin gurutzeak eta soro bakoitzean bat jartzen zuten soroa bedeinkatzeko. Antzinarago ur bedeinkatua soroetara botatzen ere ikusitakoa da.

90. Gaztetan gazteleraz kanta

- **Erref**: BRM-118/049
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:43:35. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
Kantatzea asko gustatzen zitzaion, baina Francoren garaian gaztelerazko kantak baino ez zituzten abesten. Geroago, semeak eta bilobek ikasi dituzte euskarazkoak.

91. Gaztaina harroaren ipuina

- **Erref**: BRM-118/050
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:46:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Gaztaina harroaren ipuina: atso batek ehun duket izan zituen gaztaina harro batean. Haiek berreskuratzeko zer egin zuen atsoak kontatzen du ipuinak.

92. Bermeo, herri kantaria

- **Erref**: BRM-118/051
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:46:35. **Bukatu**: 00:47:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
Irratian entzun zuen lehenengo aldiz "Xalbadorren heriotza" kantua eta ikasi ere bai. Beti kantatu izan da asko Bermeon.

93. Plastikoa, pozoia

- **Erref**: BRM-118/052
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:47:45. **Bukatu**: 00:48:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Japoniarrek asmatu zituzten negutegiak; kristalezkoak. Gaur eguneko plastikozkoak oso kaltegarriak omen dira. Hala esan zion plastiko fabrika bateko langile batek.

94. Kantuan autobusean

- **Erref**: BRM-118/054
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:50:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
Bermeo eta Gernika inguruko baserritarrekin joan zen lehenengo negutegiak ikustera, Irunera eta Ibarrara. Etxerakoan, autobuseko mikrofonotik kantuan aritu zen, eta baten batek zoriondu ere egin zuen.

95. Apaizak korurako nahi

- **Erref**: BRM-118/055
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 00:50:32. **Bukatu**: 00:51:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Abade batek korura kantatzera eraman nahi izan zuen, baina amak ez zion utzi, umeak etxean nahi zituen eta.

96. Ama Lurra

- **Erref**: BRM-118/056
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:51:01. **Bukatu**: 00:51:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Natura

Laburpena:
Lurra eta gizakia bat gara. Jesusek ez luke aldatuko bere inguruko lurra ezergatik. Gizon boteredunak ere ez litzateke ezer izango lurrik gabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com